# Fisiologia

Zikloa: 2.a eta 3.a

**Gaia:** Energia lortzeko jatea

☐ IRAKASLEA ☒ IKASLEAK

www.fundaciondiabetes.org



Gure gorputza milioika osagai txikiz osatuta dago eta osagai horiek **zelula** izena dute: gure gorputza zelulaz egina dago.

Zelula batzuk hezurrak dira, beste batzuk giharrak, besteak bihotza, azala, begiak...

Behar bezala funtzionatzeko ezinbestekoa dute janariak ematen digun energia.

Elikagaiek indartsu eta osasuntsu izaten laguntzen digute.

Elikagai horietako batzuk **karbohidratoak** dira eta edozer egiteko behar dugun energia ematen digute.





Jan eta edaten dugun guztia urdailean eraldatzen da, gorputzak baliatu ahal izan dezan. Lan horri **digestio** deitzen diogu.

Digestioari esker, karbohidratoak **glukosa** bilakatzen dira. Glukosa da gorputzak funtzionatzeko behar duen gasolina.

Urdailak elikagaiak glukosa bilakatu ondoren, odolak glukosa hori gorputzeko zelula guztietara garraiatzen du.

